

# MOZART



# BEETHOVEN

**5** ABENDUA | 19:30  
DICIEMBRE

Pamplona / Iruña | BALUARTE

[euskadikoorkestra.eus](http://euskadikoorkestra.eus)

# EUSKADIKO ORKESTRA

Zuzendari Titularra / Director Titular: **Robert Treviño**

## KONTZERTINOAK

### CONCERTINO

Franz-Markus Siegert

## I BIOLINAK / VIOLINES I

Xabier de Felipe (1)  
Irene Echeveste (4)  
José Ignacio Aizpiri  
Inmaculada Aramburo  
Maddi Arana (5)  
Marie Gaillard  
Alexandre Kozouline  
Óscar López  
Maite Menéndez  
Larraitz Oartzabal  
Ortzi Oihartzabal  
Itziar Prieto  
Maialen Rezabal  
Cristina Vértiz

## II BIOLINAK / VIOLINES II

Raquel Cortinas (2)  
Xabier Gil (2)  
Mikel Ibañez (4)  
Marie Héloïse Arbus (5)  
Amaia Asurmendi  
Nathalie Dabadie  
Virgile Demillac  
Ludwik Hamela  
Anne-Marie Harmat  
Antoni Kosc  
Ricardo Ruiz  
Igor Torre

## BIOLAK / VIOLAS

Delphine Dupuy (2)  
Pawel Krymer (2)  
Monika Mazur (4)  
Maite Abasolo  
Esther Alba  
Pascal Arnaud  
Gema Dorado (5)  
Natacha Dupuy-Scordamaglia  
Justyna Janiak-Krymer  
Arkaitz Martínez  
Sergio Montero  
Yann Seyrac

## BIOLONTXELOAK

### VIOLONCHELOS

Juan Ignacio Emme (2)  
Gabriel Mesado (2)  
Flore Lefevre (4)  
Natalia Díaz  
Jon Larraz  
Beatriz Linares  
Pascale Michaud  
Ian Swedlund

## KONTRABAXUAK

### CONTRABAJOS

Arkadiusz Maciejski (2)  
Paloma Torrado (2)  
Marc Sirena (4)  
Victor Bogdanov  
Mehmet Sönmez  
Pierre Torrent  
Guangyao Zhao

## FLAUTAK / FLAUTAS

Hélène Billard-Alirou (2)  
Bruno Claverie (2)  
Ander Erburu  
Oihana Kontxeso

## OBOEAK / OBOES

Óscar Diago (2)  
Javier Lecumberri (2)  
Pascal Laffont  
Hervé Michaud

## KLARINETEAK

### CLARINETES

Luis Cámara (2)  
Juan Navarro (2)  
Stéphane Langlois  
Sara Zufiaurre

## FAGOTAK / FAGOTES

François Proud (2)  
Yuan Dai  
Anne Charlotte Lacroix

## TRONPAK / TROMPAS

Marcos Cruz Pardeiro (2)  
Adrián García Carballo (2)  
Cristian Palau (2)  
Jean-Luc Casteret  
Xabier Sarasa  
Marianne Tautzin  
Salvador Tudela

## TRONPETAK / TROMPETAS

Didier Bousquet (2)  
Jesús Castillo  
Miguel Echebare

## TRONBOIAK / TROMBONES

Arnaud Mandoche (2)  
Christophe Sánchez (2)  
Sergio Manteiga  
Daniel Ruibal

## TUBA

Oscar Abella (2)

## TINBALAK ETA PERKUSIOA TIMBALES Y PERCUSIÓN

Igor Arostegi (2)  
Anthony Lafargue (2)  
Héctor Marqués (2)  
Alba Rodríguez (3) (5)  
Xabier Peña

## HARPA / ARPA

Iván Bragado (2)

- (1) Kontzertinoaren laguntzailea / Ayuda de concertino
- (2) Bakarlarria / Solista
- (3) Bakarlari-laguntzailea / Ayuda de solista
- (4) Lehen *tuttia* / Primer tutti
- (5) Aldi baterako kontratazioa / Contratación temporal

**PINCHAS ZUKERMAN**  
Zuzendaria, Biolina ° Director, Violín



# MOZART | BEETHOVEN

EGITARAUA ^ PROGRAMA

I

**WOLFGANG AMADEUS MOZART** (1756-1791)

**La flauta mágica, K.620. Obertura** [7']



**PAUL BEN-HAIM** (1897-1984)

Moldaketa / Arreglo: Lahav Shani

**Berceuse sfaradite** [4']\*

**WOLFGANG AMADEUS MOZART** (1756-1791)

**Concierto nº5 en la mayor para violín y orquesta, K.219, 'Turco'** [31']

- I. Allegro aperto
- II. Adagio
- III. Rondo: Tempo di menuetto

II

**LUDWIG VAN BEETHOVEN** (1770-1827)

**Sinfonía nº2 en re mayor, Op.36** [32']

- I. Adagio Molto - Allegro con brio
- II. Larghetto
- III. Scherzo: Allegro
- IV. Allegro Molto

\*Orkestrak lehen aldiz interpretatutako obra / Obra interpretada por primera vez por la orquesta

Gaur gure artean dugu **Pinchas Zukerman**, biolineko nazioarteko izarretako bat eta Euskadiko Orkestraren lagun handia. Hamar urte baino gehiago daramatza Euskadiko Orkestrarekin erregulariki lanean. Zukermanek mende erdi baino gehiago darama aktibo musikari gisa. Isaac Stern eta Pau Casalsek babestu zuten hasieran eta, ordutik, biolinerako literatura handi guztia interpretatu du ia, XX. mendeko musikaririk onenekin batera. Hala, oso hurbileko harremana du hainbat artistarekin, hala nola Zubin Mehta, Daniel Barenboim edo Jacqueline du Pre-rekin. Diskografia oso zabala du biolinjole gisa, 100 obra baino gehiago grabatu ditu eta bitan irabazi du Grammy saria. Baina, biolina jotzen bertuosoa izateaz gain, orkestra-zuzendari trebea da, eta gaur bi talentuak erakutsiko dizkigu, Mozart eta Beethoveni eskainitako programa baten bidez.

Baina dena ez da erreperitorio klasikoa izango haren emanaldian. Izan ere, **Txirula Magikoaren** obertura ospetsuaren ondoren –Mozarten azken opera izan zen, hil baino bi hilabete lehenago amaitu zuena–, Zukermanek **Paul Ben-Haimen Berceuse sfaradite** aurkeztuko du lehen aldiz Euskadin. Ben-Haim Munichen jaio zen, eta orkestra-zuzendari ospetsuen (adibidez, Bruno Walter eta Hans Knappertsbusch) laguntzailea izatera heldu zen. Dena den, haren konpositore-alderdiari bultzada bat eman zion Tel Aviven finkatu zenean, 1933an. Bertan, ekialdeko musikarekin trebatu zen, Bracha Zfira abeslari yemendarrarekin batera lan eginez. Ben-Haimek hogeita hamabost abesti inguru moldatu zituen abeslari harentzat 1939 eta 1951 artean. *Berceuse sfaraditek* moldaketa horietako batean du jatorria; zehazki, *Mama, yo no tengo visto* abesti ezagun ladinoan. Ben-Haimen lanik ezagunenetako bat bihurtu zen. Hainbat zortzidunetan behin eta berriz figura melodiko beraren inguruan biratzen den lo-kanta hori biolinerako eta pianorako moldatu zuten 1945ean. Azken horrek elkarrizketa lasai batean laguntzen dio biolinjoleari, eta, batzuetan, disonantzia biziak sartzen ditu ehun harmonikoan. Gaur biolinerako eta orkestrarako bertsioa entzungo dugu, duela gutxi Lahav Shani zuzendari israeldarrak egina.

**Mozart** sei urterekin hasi zen biolina jotzen ikasten, aitaren babesean. Izan ere, biolinjole nabaria eta pedagogo zen aita; semea jaio zen urtean (1756), *Biolinaren interpretazioaren oinarriei buruzko tratatua* argitaratu zuen. Aurrerago, nerabea zela, Austriako gortearen zerbitzura sartu zen Mozart, orkestrako biolinjole gisa. 1772an, Hieronymus Franz Josef von Colloredo tiranikoa Salzburgoko printze artzapezpiku bilakatu zen, eta hainbat zereginetara behartzen zuen Mozart, orkestrari zegozkion zereginenez gain. Adibidez, konposatzera eta haren festa pribatueta piezak jotzera behartzen zuen. Mozartek gorroto zuen nagusia, jarrera tiraniko eta autokratikoa. Izan ere, zerbitzari baten gisara tratatzen zuen, 150 florineko soldata kaskarra ordaintzen zion eta neskaekin eta lekaioekin jan zezan tematzen zen. Hala ere, gorteko egonaldi gogor hartan jaio ziren biolinerako konposatu zituen obra gehienak, hala nola biolinerako eta orkestrarako bost kontzertuak, 1775ean konposatuak, Mozartek solista gisa interpretatzeko. Salzburgoko gortetik irten eta *freelance* musikari gisa finkatu zenean, sarritan aritu zen solista gisa.

**Biolinerako 5. Kontzertua** apur bat aurreratua da aurreko laurak baino, horiek nahiko konbentzionalak baitziren. *Bosgarrenak* gauza originalak ditu, lehenengo konpasetatik: orkestraren sarrera distiratsuaren ondoren, nota luzeko melodia liriko baten bidez aurkezten da solista. Melodia horrek soinuaren kalitatea erakustea ahalbidetzen dio, sonatako *allegro* baten formatu tradizionalari ekin aurretik. Bigarren mugimendua luzeena da eta, nolabait, hiruretan landuena ere bai. Solistak gidatzen du diskurtsoa, izaera intimo eta kontenplaziozkoarekin. Bitartean, orkestrak babesa ematen dio melodia inspiratzaileetan. Baina kontzertuaren zatirik ezagunena hirugarren mugimendua da: minuetaren eta rondoaren arteko nahasketa berezia. Minuetuaren musika dotorea eta apaina da, eta kontraste efektista sortzen du rondoaren edukiarekin; izan ere, turkiar martxa dramatikoak eta indartsua da rondoak.

**2. Sinfonia, Beethovenen** sinfonien artetik gutxien interpretatzen dena, sorkuntza deserosoa izan da beti Beethovenen ziklo harrigarria hausturarik gabeko unitate estetiko gisa ikusi nahiko luketen horientzat. *Lehenengo Sinfonia* Beethovenen aldi goiztiarrean sailkatzen da, arazorik gabe. Maisu-lana da, haren irakaslearen, Haydnen, eraginetik jaioa. **2. Sinfoniak**, Beethovenek Heiligenstadteko Testamentua idatzi zuen zorigaitzoko uda hartan zehar idatzi zuenak, Beethovenen heldutasuna aurreratu zuen alderdi askotan, baina haren egiturak kanon klasikoak gertutik jarraitu zituen oraindik ere. Formaren eta edukiaren arteko talka horiek zirela eta, sinfonia hura «xelebretzat» hartu zuten bere garaian.

Beethoven lur jota zegoen hilabete batzuetan zehar konposatua izan arren, **2. Sinfoniaren** espiritua optimista eta alaia da, itzulitururik gabea. Gortasuna aurrera zihuan progresiboki, eta hori suntsitzailea izan zen konpositorearentzat; batez ere, alderdi psikologikotik, alderdi fisikotik baino gehiago: «Jendearengana hurbiltzen banaiz, izugarrizko larritasuna sentitzen dut segituan, nire egoeraz ohartuko direlakoan», idatzi zuen 1802. urteko uda hartan.

Larritasun horren aurrean, **2. Sinfoniaren** sarrera tinbalen eztanda batekin hasten da. Gero, modulazioen aparteko jolas baten ondoren, *Allegro con brio* batera joaten da, eta indar eta borondate iraungiezin batekin komunikatzen da. *Larghettoa*, mugimendu geldo tradizional bat izan beharrean, sentimendu bukolikoko orrialde lasaia da. Baina hirugarren mugimenduan sartu zuen Beethovenek berritasun handiena, minuet estandarren ordezkari energetiko eta umore onez betetako *Scherzo* bat sartu baitzuen lehen aldiz. Sentimendu hori *Finalera* zabalduko da. Bertan, Beethovenek sorpresa bilatuko du uneoro. Hala, estreinaldiko kritikari baten arabera, sinfonia honetan Bonneko jenoak «berriaren eta nabarmenaren efektua eta borroka lortzeko ahalegina egiten du». Beste iruzkingile batzuek, berriz, gaitzetsi egin zuten lana. Garai hartako estilo arranditsuan, honela deskribatu zuten: «gehiegikeria baldarra, hiltzeari uko egiten dion suge zauritu erraldoia, hilzorian eta hil arte odoletan, buztanarekin *finalea* haserre kolpatzen duena».

**H**oy nos acompaña **Pinchas Zukerman**, una de las estrellas internacionales del violín y gran amigo de Euskadiko Orkestra, con la que viene colaborando regularmente desde hace más de una década. Zukerman ha superado ya el medio siglo como músico en activo: en sus inicios fue apadrinado por Isaac Stern y Pau Casals, y desde entonces ha interpretado la práctica totalidad de la gran literatura para el instrumento junto a muchos de los mejores músicos del siglo XX, desarrollando lazos especialmente cercanos con artistas como Zubin Mehta, Daniel Barenboim o Jacqueline du Pré. Su discografía como violinista es inmensa: ha grabado más de 100 obras y ha ganado el Grammy en dos ocasiones. Pero además de un virtuoso del violín, Zukerman es también un hábil director de orquesta, y hoy nos mostrará ambos talentos con un programa dedicado a Mozart y Beethoven.

Pero no todo será repertorio clásico en su actuación, ya que tras la famosa *Obertura de La flauta mágica*—la última ópera de Mozart, que finalizó apenas dos meses antes de su fallecimiento —, Zukerman presentará por primera vez en Euskadi la *Berceuse sfaradite* de **Paul Ben-Haim**. Nacido en Múnich, Ben-Haim llegó a ser asistente de directores de orquesta legendarios como Bruno Walter y Hans Knappertsbusch, pero dio un impulso a su faceta de compositor tras asentarse en Tel Aviv en 1933. Allí se familiarizó con la música oriental colaborando con Bracha Zfira, cantante yemenita, para la que Ben-Haim arregló unas treinta y cinco canciones entre 1939 y 1951. La *Berceuse Sfaradite* procede de uno de esos arreglos, concretamente el de la canción popular ladina *Mama, yo no tengo visto*, que se convirtió en una de las obras más populares de Ben-Haim. En 1945 esta canción de cuna, que gira una y otra vez sobre la misma figura melódica en diferentes octavas, fue arreglada para violín y piano. Este último acompaña al violinista en un diálogo tranquilo, introduciendo, ocasionalmente, expresivas disonancias en el tejido armónico. Hoy escucharemos la versión para violín y orquesta que ha realizado recientemente el director israelí Lahav Shani.

**Mozart** comenzó a estudiar el violín a los seis años bajo la tutela de su padre, un destacado violinista y pedagogo que había publicado su *Tratado sobre los fundamentos de la interpretación del violín* el mismo año del nacimiento de su hijo (1756). Más adelante, cuando ya era un adolescente, Mozart entró al servicio de la corte austríaca como violinista de la orquesta. En 1772, el tiránico Hieronymus Franz Josef von Colloredo se había convertido en el príncipe arzobispo de Salzburgo y obligaba a Mozart a atender a numerosas tareas además de las que le correspondían en la orquesta, como componer y tocar piezas para sus fiestas privadas. Mozart odiaba a su patrón, de actitudes tiránicas y autocráticas, porque lo trataba como si fuera un sirviente, le pagaba un miserable salario de 150 florines e insistía en que comiera con las criadas y los lacayos. Pero de aquella dura estancia en la corte nacieron también la mayor parte de sus obras para violín, incluidos los cinco conciertos para violín y orquesta, compuestos en 1775 para ser interpretados por el propio Mozart como solista, algo que haría a menudo tras salir de la corte salzбургuesa y asentarse como músico *freelance*.

El **Concierto para violín nº5** es algo más avanzado que los cuatro anteriores, bastante convencionales. El *Quinto* muestra originalidades ya desde los primeros compases: tras la brillante introducción orquestal, el solista se presenta con una lírica melodía de largas notas que le permite mostrar la calidad de su sonido,

antes de proceder con el formato tradicional de un *allegro* de sonata. El segundo movimiento es el más largo y también, en cierto modo, el más elaborado de los tres. De carácter íntimo y contemplativo, es el solista quien lidera el discurso, con las fuerzas orquestales arropándolo en sus inspiradas melodías. Pero el más famoso fragmento del concierto es el tercer movimiento, una peculiar mezcla de minuetto y rondó. La música del minuetto, elegante y delicadamente ornamentada, contrasta de forma efectista con el contenido del rondó, una marcha turca dramática y poderosa.

La **Sinfonía n.º2**, la que menos se interpreta entre las nueve sinfonías de **Beethoven**, ha sido siempre una creación incómoda para quienes les gustaría admirar el portentoso ciclo beethoveniano como una unidad estética sin fisuras. La *Primera Sinfonía* es clasificada sin mayor problema dentro del periodo temprano de Beethoven, como un magistral producto nacido de la influencia de su maestro, Haydn. Pero la *Sinfonía n.º2*, escrita durante aquel aciago verano en el que Beethoven redactó el Testamento de Heiligenstadt, adelanta al Beethoven de madurez en muchos aspectos, pero se aferra a una estructura que sigue aún de cerca los cánones clásicos. Estas fricciones entre forma y contenido hicieron que esta sinfonía se considerara «excéntrica» ya en su propia época.

A pesar de haber sido compuesta durante unos meses en los que Beethoven definitivamente tocó fondo, el espíritu de la *Sinfonía n.º2* es optimista e incluso alegre sin rodeos. La lenta progresión de la sordera le resultó al compositor más destructiva en un plano psicológico que puramente físico: «Si me acerco a la gente, estoy enseguida atenazado por una angustia terrible: la de exponerme a que adviertan mi estado», anotaba en aquel verano de 1802.

Frente a esta angustia vital, la introducción de la *Sinfonía n.º2* comienza con una explosión de los timbales. Luego, tras un extraordinario juego de modulaciones, desemboca en un *Allegro con brio* que comunica una pujanza y voluntad inextinguibles. El *Larghetto*, más que un tradicional movimiento lento, es una relajada página de sentimiento bucólico. Pero es en el tercer movimiento donde Beethoven introduce la mayor novedad, al sustituir por primera vez el estandarizado minuetto por un *Scherzo* repleto de energía y buen humor. Este sentimiento se propagará a una *Finale* en el que Beethoven persigue constantemente la sorpresa, lo que llevó a afirmar a uno de los críticos del estreno que el genio de Bonn, en esta sinfonía, «se esfuerza por lograr el efecto y lucha por lo que es nuevo y notorio». Otros comentaristas, sin embargo, detestaron la obra, describiéndola, en el rimbombante estilo de la época, como «una grosera enormidad, una inmensa serpiente herida que se niega a morir y que, retorciéndose en sus últimas agonías y sangrando hasta la muerte, golpea furiosamente con su cola en el *finale*».

————— MIKEL CHAMIZO

HURRENGO ABONU KONTZERTUA • PRÓXIMO CONCIERTO DE ABONO

## BRAHMS / SCHOENBERG

Urtarrila 15 Enero | 19:30



SARRERAK / ENTRADAS

10€ < 40€

euskadikoorkestra.eus  
baluarte.com  
Leihatila - Taquilla



# Batzen gaituen musika

---

